

## Laneko arriskuen **PREBENTZIOA** Osasungintzan...



# ...denon gauza da.

## Prebentziorako neurriak

### Kolpe eta talkak

Osasun-materiala duten orgak igarobide estuetan edo kontsulta edota logelen atean aurrean kokatzea ekidin ezazu. Igarobideetatik urrun dauden horma edo zutabeen ondoan jartzen saia zaitez.

### Inokulazio perkutaneoak, ebaketa edota mozketa

- Material ebakitzaila edo zorrotzaren erabilera ekidin edo gutxitu ezazu.
- Material ebakitzaila ez ezazu edonon utzi, bere bilketarako egokiak diren tresnak erabili.
- Elementu ebakitzailak egokiak diren eta ongi identifikatuak dauden ontzi eta edukiontzi zurrunetan sartu itzazu.
- Odol edo beste fluido infekzioso baten ustekabeko inokulazioa gertatzen bada, zure nagusiari jakinarazi jarraipen bat egin eta izan daitekeen kutsadura baztertzeko.

### Zipriztinak

Azalean edota mukosa batean odol edo fluido baten zipriztina gertatu ezker, berehala garbitu eta zure nagusiari jakinarazi izan daitekeen kutsadura baztertzeko.

### Konposatu zitostatikoekiko esposizioa

Aire laminar fluxua duten II Klaseko segurtasun biologikoko beira-arakak erabili. Beira-arasa erabili aurretik eta ondoren garbitu.

### Agente kimikoekin kontaktua

Agente kimikoak fabrikatzailearen gomendioen, etiketaren edo segurtasun datuen fitxaren arabera erabili itzazu.